


Datozen bidegorriak


Bost bidegorri egiteko asmoa du Udalak. Bide hauek orain daudenen jarraipena izango dira eta auzoen arteko loturak erraztuko dituzte. Batzuk txirrindularientzako izango dira soilik, eta beste batzuk txirrindulari eta oinezkoentzat. Hona hemen bost bidegorri horien nondik norakoak:

Mayi Tolosa



Ramon Maria Lili:

Gros eta Egia lotuko ditu Ramon Maria Lili kaleko bidegorriak. Sagues eta Zuhaiztin egingo diren aparkalekuak bukatu arte ez dira bidegorri hau egiten hasiko. Aparkaleku hauek bukatzerakoan, Ramon Maria Lili kaleko aparkalekuak murriztu eta espaloiak zabalduko dituzte.



Gros-Bidebieta-Herrera:

Jose Maria Arana kalea izango da Gros, Bidebieta eta Herrera arteko bidegorriaren abiapuntua. Galtzara Zaharretik iritsiko da Ategorrietara. Ategorrieta eta Herrera arteko zatiaren nondik norakoa aztertzen ari da Foru Aldundia. Litekeena da bidegorria Intxaurrenondoko Zubiaurre pasealekutik Bidebietara eta Herrerara iristea. Lanak 2005ean hasia espero da.




Foruen eta Argentinako Errepublikaren pasealekuak:

Aurreikusitako epeak betetzen badira, urrian hasiko dira bidea egiten. 300.000 euro bideratuko dira lan hauetarako. Bidegorri hau Erdialdean, lehendik eginda zeuden bideak elkarren artean lotzeko giltzarri da. Bidegorri hau egin eta gero, Amaratik Grosera eta Parte Zaharrera bizikletaz joateko aukera izango da.


Morlans-Ibaeta:


Oinezkoentzako eta txirrindularientzako bidea izango da Morlans eta Ibaeta artekoa. Udalak EuskoTrenen trenbidea baliatu nahi du bidegorria egiteko eta zati handi bat -3 kilometro inguru- tunel barnealdetik joango litzateke. Laster EuskoTrenetik ibilbidea aldatuko du, eta hain zuzen orain arteko ibilbidea aprobetxatu nahi dute. Hala ere, bidegorri hau egin aurretik azterketa egin behar du Udalak.



Lorea-Añorga Txiki:

Tolosa hiribidetik, trenbide ondotik, joango da Errotaburu eta Añorga Txiki arteko bidegorria. Txirrindulariak eta oinezkoak joan ahalko dira bide horretatik. Behin bidegorri hau egokituta, aurretik Tolosa hiribidean egindakoekin lotzeko zatitxo bat baino ez da geldituko egiteke, Errotaburu eta Zapatari arteko. Aurrekontua 900.000 euro ingurukoa da. Lanak noiz hasiko dituzten zehazteke dago.





Kale kantoitik

Behatokia, irailean

Kalapie Txirindulari Elkarteak eta Udalak behatokia sortzeko hitzarmena sinatu zuten ekainaren 10ean. Behatokiak bidegorrien egoera eta berriak egiteko aukera aztertuko du. Horretaz gain, hiru helburu nagusi izango ditu: herritarren iritziak eta proposamenak posta elektronikoz, telefonoz eta posta arruntez jasotzea; Udalak hartzen dituen konpromisoak betetzen direla bermatzea eta Donostian bizikleta erabiltzen dutenentzat interesgarri diren datuen azterketa egitea. Esaterako, zenbat istripu gertatzen diren eta non, bidegorrien egoera. . . Behatokia irailean jarriko dute martxan.

Egun osoz zabalik (10:00etatik 23:00etara)

Jatetxea



Bokateria

Karta • Eguneroko menua • Bokatak

IGARA bidea, 16 behea DONOSTIA 20009

Tel.: 943 310797 • 943 217686

MARCOS



*Okindegia eta
etxeko gozoak*

Tel.: 943 450966

Ubarburu P., 4-5 pabiloiak 27 Industrialdea • MARTUTENE

Ubarburu kalea, 2.-B Ijurko • LEZO

Ategorrieta etorbidea, 33 • DONOSTIA

Zumalakarregi kalea, 24 • PASAI ANTZO